

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERGANZOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onestea auzolanen ordenantza

Kontzeju honek, 2022ko azaroaren 19an egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion auzolanak arautzen dituen ordenantza onesteko espedienteari. Espediente hori jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ezenez gero, behin betiko onesten da. Beraz, osorik argitaratzen da, indarrean jartzeko, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Auzolanen ordenantza

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da kontzeju honetako auzolanak arautzea eta definitzea, halakotzat ulertuta kontzeju honetan egin beharreko nahitaezko prestazio pertsonalak, bat etorritik Kontzejuen martxoaren 2ko 11/1995 Foru Arauak 44. artikuluan xedatzen duenarekin.

Kontzejua lurralde izaerako toki erakunde bat da, bere nortasun juridiko eta jarduteko gaitasunagatik, jurisdikzioa udalerrira baino lurralde barruti txikiagoan duena.

2. artikulua. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, honako definizio hauek ezartzen dira:

2.1. Auzotar familia: etxe batean, kontzejuaren lurretan, bizi den pertsona edo pertsona taldea, horietako batek behintzat kontzejuaren erroldan inskribatuta egon behar duela, kontzejuan urtean zazpi hilabete baino gehiagoan bizitzeagatik.

2.2. Egoitzadunak: pertsona edo pertsona taldea, euren artean ahaide izanik edo izan gabe, edozein tituluren bitartez kontzejuan etxebizitzaren bat daukana, udal erroldan inskribatuta egon ala ez.

2.3. Auzolana: auzokoek edo egoitzadunek egin beharreko eraikuntza, konponketa edo mantentze lana edo jarduera, kontzejuaren barrutian edo kontzejuak jabetzan, edukitzean edo erabiltzeko esleituta dauzkan ondasunetan, horiek erabilera edo zerbitzu publikorako izanik.

Auzolanak honela sailkatzen dira:

2.3.1. Ohiko auzolanak: erabilera edo zerbitzu publikorako erabiltzen diren kontzejuaren ondasun eta zerbitzuak zaindu eta instalatzearen, urtean zehar egiten direnak. Lan hauek egin daitezke auzolanetan:

a) Herri barruko bide publikoak eta horien osagai guztiak zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

b) Saneamendu, hustubide, estolda, lorategi, iturri, putzu eta garbitokiak konpondu, hobetu eta garbitzea.

c) Kontzejuaren ur instalazioak konpondu, zaindu eta mantentzea, urak jatorrian biltzen diren lekutik etxeetako hartuneetara, kontzejuaren titularra den guzti-guztitan.

d) Kontzejuaren jabetzakoak diren eraikinak eta gune publikoak konpondu, garbitu eta horien mantentze lanak egitea.

- e) Kontzejuaren eskumeneko lurraldean pertsonentzako arriskuak saihesteko lanak egitea.
- f) Bideak, landa bideak, baso bideak eta bidezidorrak egin, konpondu eta zaintzea.
- g) Hilerria zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.
- h) Kontzejuaren onurarako beharrezko izan daitekeen beste edozein ekintza.

2.3.2. Ezohiko auzolanak: hondamendietan, uholdeetan, suteetan edo aurreikusi ezin daitezkeen bestelako ezbeharretan egin beharreko auzolanak.

2.3.3. Dena den, auzolanen prestazioak ezin izango dira Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 129.3 eta 130.2 artikuluetan finkatutako mugak baino handiagoak izan.

3. artikulua. Betebeharra dutenak

3.1. Auzolanak denoi dagozkigunez gero, nahitaezkoa da, gutxienez, kontzejuko familia bakoitzeko kide batek parte hartzea, bai eta egoitzadunak edo kontzejuan etxe bat elkarrekin daukaten egoitzadunetarikoa batek ere. Hala ere, badaude salbuespenak. Hona hemen horiek:

a) Familia, egoitzadun edo egoitzadun talde bateko kide guztiek 18 urtetik behera edo 65etik gora badituzte. Aurrekoa gorabehera, 65 urtetik gorakoak ere joan daitezke auzolanetara beren borondatez, eta eurak ere istripu eta kalteetatik babestuta egongo dira dagokien aseguruarekin.

b) Auzolana egitekoa den egunean kide guztiak gaixorik edo ezindurik dituen familia, aldeztatik aurretik batzarreko lehendakariari medikuaren ziurtagiria edo dena delako egiaztagiria erakutsita.

3.2. Ordenantza honetako 2.1 artikulua zehaztutako auzotar guztiek 2.3.1 artikuluan aipatzen diren auzolanetan parte hartzeko betebeharra izango dute. Ordenantza honetako 2.2 artikuluan zehaztutako auzotarrek betebeharra dute ordenantza honetako 2.3.1 artikuluen a), b), c), d), e) eta h) letretan adierazitako auzolanetan parte hartzeko.

3.3. Aurreko apartatuan agertzen diren betebehardunetz gainera, aprobetxamenduren bat (luberrak, egurra egitea, etab.) daukaten auzotarrak ere behartuta daude parte hartzera aprobetxamenduaren gai den ondasunarekin zuzenean edo zeharka lotutako auzolanetan.

4. artikulua. Deialdia

4.1. Errejidore-lehendakariak egingo du auzolanerako deia, eta deialdian bertan zehaztuko du zein lan egingo den, non eta noiz hasiko den eta noiz buka daitekeen, bai eta zein lanabes eraman ere, 1. eranskinean ageri den moduan.

4.2. Ohiko auzolanerako deia ohiko eran eta erakundearen iragarki oholean oharra jarriz egingo da, auzolanetara joateko betebeharra dutenak agertu ahal izateko moduko aurretiaz; salbuespena izango dira ezohiko auzolanak, berezko izaeratik ez baitute baldintza hori bete behar.

4.3. Edonola ere, administrazio batzarrak auzolanak egiteko arrazoizko epeak ezarriko ditu, larrialdi egoerak, eguraldia eta gainerakoak aintzat hartuta, betebehardunek lanak ahalik eta eroso egin ahal izateko.

5. artikulua. Auzolanak nola egin

5.1. Oro har, ezarritako orduan eta adierazitako lekura joanez hartuko da parte auzolanetan, bakoitzak ekarriz egin beharreko lanerako aldeztatik aurretik zehaztu diren tresnak eta makinak.

5.2. Horretarako, auzolanen liburu ofizial bat edukiko da, zeina digitalizatu baitaiteke, eta haren orriak artxibo digitaletan gorde. Bertan jasoko dira aintzat hartu beharreko gorabeherak, 2. eranskineko ereduaren arabera.

5.3. Lehendakariak antolatuko du auzolana, eta lana ahalik eta egokien egiteko moduan banatuko ditu pertsonak eta bitartekoak.

5.4. Auzolanerako data aukeratzean, ahalegina egingo da kontzejuaren barrutian lan gehien izaten den sasoiarekin batera izan ez dadin; asteko zein egunetan egin ere kontuan hartu ahal izango da, hala auzotarrek nola egoitzadunek, denek izan dezaten joateko aukera.

5.5. Egitekoa den lanaren tamainaren eta hedaduraren arabera, deia betebehardunen kopuru jakin bati edo are banan-banan egin ahal izango da. Euren trebetasuna eta zenbateraino prest dauden kontuan izanda deituko zaie, ahalik eta eragozpen txikiena eraginez. Dena den, egiten dituzten auzolanak kontuan hartuko dira hurrengoan deialdi orokorrak egiten direnerako, eta horietara ez joateko aukera izateko.

5.6. Kontzejuak auzolanetan parte hartzen dutenak babesteko aseguru bat egingo du, zeinak auzolanetan gerta daitezkeen istripu arriskuak eta bestelako kalteak estaliko baititu.

5.7. Auzolanak ez dakar inolaz ere kontzejuaren eta auzolanean parte hartzera behartuta daudenen arteko lan harremanik.

6. artikulua. Libre geratzea

6.1. Nahitaezko auzolanean parte hartzeko betebeharra dutenek horretatik libre gera daitezke era hauetakoren batean:

a) Bere ordeztu lana egin dezakeen beste norbait bidaliz.

b) Lanordu bakoitzeko 10 euro ordainduz; horretarako, aldeztu aurretik, administrazio batzarreko lehendakariak likidazioa jakinarazi beharko dio interesatuari, behar bezala eta 3. eranskinean zehazten den ereduaren arabera jakinarazi ere.

c) Egin gabeko auzolan horren ordainetan beste auzolan batean parte hartuz, baldin eta huts egitea arrazoituta badago.

6.2. Aurreko paragrafo hori dela eta, administrazio batzarreko lehendakariak auzolanetik libre geratze horiei dagozkien likidazioak egingo ditu urtero, azaroan.

Likidazio horiek dirubilketa prozedura arautzen duen indarreko araudiari jarraituz jasoko dira, eta Arabako Kontzejuen Foru Arauak xedatutakoari jarraituz, betearazte prozeduraz ere eskatu ahal izango dira.

6.3. Administrazio batzarreko lehendakariari bidezko arrazoia adierazi gabe deitutako auzolana huts egiten bada, nahiz eta hein batean huts egin bakarrik, artikulua honen 1. apartatuaren b) letra aplikatuko da eta, ondorioz, hor zehazten den zenbatekoa ordainduko.

7. artikulua. Kalte-ordaina auzolanean parte hartzeagatik

Auzolanetan parte hartzeko betebeharra dutenek diru konpentsazio bat jaso ahal izango dute ordain edo kalte ordain modura, kontzejuak erabakitzen duenaren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, kontzeju honetako auzotarren batzarrak 2022ko azaroaren 19ko bilkuran onetsi zuena, ALHAOn oso-osorik argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan xedatutako epea igarotakoan jarriko da indarrean eta hala jarraituko du harik eta aldatzea erabakitzen den arte.

Dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Berganzo, 2023ko urtarrilaren 24a

Lehendakaria
EMILIO MANUEL LÓPEZ

3. ERANSKINA**JAKINARAZPEN EREDUA, AUZOLANETIK LIBRE GERATZEAREN LIKIDAZIOARENA**

IZENA:.....

(Interesdunaren identifikazio datuak)

HELBIDEA:.....

Jaun/andre hori:.....

Erakunde honetako auzolanen liburuan jasotzen diren datuen arabera, kontzeju honek(e) ko.....aren.....(e)(a) n (adierazi zer egun, hil eta urtetan gelditu zen libre auzolana egitetik) AUZOLANA (adierazi libre geratutako auzolan horretan zer lan egin behar izan zen) egitera agertu ez diren pertsonetako bat zara; ondorioz, kasuan kasuko ordenantza arautzailearen 6. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz,euro (adierazi auzolanen ordenantzan zehaztutako zenbatekoa) ordaindu beharko duzu libre geratzearen.

Zenbateko hori kontzeju honen kontu zenbakian (adierazi administrazio batzarraren kontu zenbakia) sartu beharko duzu, gehienez ere hamabost egun balioduneko epean, jakinarazpen hau egin eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe horretan diru sarrera egiten ez baduzu, premiamendu bidez ordaindu beharko duzu, ehuneko 20ko errekararekin, legezko berandutza interesekin eta sortzen diren kostuekin, halakorik izanez gero.

Hori jakinarazten dizut eta adierazten dizut administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daitekeela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen egunaren hurrengotik aurrera, edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtsua, administrazio batzarreko lehendakariari, hilabeteko epean, jakinarazpen egunaren hurrengotik aurrera. Administrazio batzarreko lehendakariaren esanbidezko ebazpenaren edo ustezkoaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, berraztertze errekurtsua ezesten duen ebazpenaren jakinarazpen egunaren hurrengotik aurrera, edo sei hilabeteko epean, errekurtsu hori ustez ezesten den egunaren hurrengotik aurrera.

Ohar garrantzitsua: jakinarazpen hau egiteko, jaso egin dela egiaztatzen duen moduren bat erabiliko da (postaz bidalita, gutun ziurtatu bidez eta jaso agiriarekin; eta gutunaren fotokopia eskuz emanda, interesdunaren sinadurarekin eta jaso egunarekin. Baldin eta etxean ez badago, bertan dagoen beste edozeinek jaso dezake, nor den adierazi ondoren).

Aurkeztu beharreko agiriak: klausula ekonomiko-administratiboaren pleguan agertzen direnak (9. klausula).